

**EBAZPENA, 2016KO MAIATZAREN 19KOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO
ZUZENDARIARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JUSTIZIA
ADMINISTRAZIOKO KOMUNIKAZIO TELEMATIKOEI BURUZKOA**

Justizia Administrazioan, komunikazio elektronikoko sistemak ezarri dira, hain zuzen, Justizia Administrazioak herritarrei zerbitzu publiko modernoa, eraginkorra eta kalitatekoa emateko beharrezkoak diren egitura eta bitartekoak berritzeko abiarazi den prozesu orokorraren barruan.

Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 230. artikulua ezartzen du, uztailaren 21eko 7/2015 Lege Organikoak eginiko erreformaren bidez, langileek dagozkien jarduerak eta eginkizunak gauzatzean, nahitaez erabili behar dituztela eskura dituzten baliabide teknikoak, elektronikoak, informatikoak eta telematikoak, betiere Titulu honetako I bis kapituluak, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta aplikatzekoak diren bestelako legeek baliabide horiek erabiltzeko ezartzen dituzten mugak aintzat hartuta.

18/2011 Legeak, uztailaren 5ekoak, Justizia Administrazioan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien erabilera arautzen duenak, Justizia Administrazioan baliabide informatikoak erabiltzeko esparru orokorra definitu zuen. IV. tituluko III. kapituluan, idazki, komunikazio eta jakinarazpen elektronikoen erregistroa aipatzen du.

Azkenik, duela gutxi onetsi da Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea aldatzen duen urriaren 5eko 42/2015 Legea. Bertan jasotzen dira komunikazio telematiko eta elektronikoei buruzko hainbat alderdi jorratzen dituzten xedapenak. Xedapen horietan ezartzen da idazkiak nahiz agiriak aurkeztean, eta komunikazio-egintzak gauzatzean, derrigor erabiliko direla Justizia Administrazioan dauden sistema telematikoak.

Ebazpen hau Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 15eko 188/2013 Dekretuaren 20. artikulua emandako eskumenen arabera eman da. Aldez aurretik sistemako erabiltzaileen ordezkarien artean adostu da, Euskal Autonomia Erkidegoan JustiziaSip hedatzearen inguruan eginiko jarraipenaren barruan.



XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA

Protokolo honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoko bulego judizialeko komunikazio telematikoaren sistemaren funtzionamendu-araubidea arautzea da, jarraian zerrendatzen diren justizia-arloko profesionalen bidez:

- Justizia Administrazioko Abokatuen Kidegoko funtzionarioak.
- Prozesu eta Administrazio Kudeaketaren Kidegoko funtzionarioak.
- Prozesu eta Administrazio Izapidetzearen Kidegoko funtzionarioak.
- Laguntza Judizialeko Kidegoko funtzionarioak.
- Abokatuak
- Gizarte Graduatuenak
- Euskal Autonomia Erkidegoko Prokuradoreen Elkargo Ospetsuak
- Herri Administrazioen Zerbitzu Juridikoak
- Konkurtsoko administratzaileak
- Hitzarmen hau egitean sar daitezkeen beste batzuk

DEFINIZIOA ETA EZAUGARRIAK

Euskal Autonomia Erkidegoko organo eta bulego judizial guztietan ezarritako prozesu-kudeaketako sistema informatikoak bermatuko du informazioaren erabilgarritasuna, benetakotasuna, osotasuna, konfidentzialtasuna eta kontserbazioa.

Sistema horren bidez, era berean, bermatu egingo da profesionalei idazki, agiri eta jakinarazpen telematikoak igortzean, beharrezkoak diren segurtasun-neurriak beteko direla —jakinarazpenak gerarazi edo aldatu ez daitezen, eta baimendu gabeko sarbiderik egon ez dadin— eta datu pertsonalak babestuko direla, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta lege hori garatzen duten xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Bitarteko telematikoaren bidez komunikazioak eta jakinarazpenak igortzean, JustiziaSip aplikazioa erabiliko da, zehazki, JustiziaNet profesionalen extranetaren bidez (dagokionean, Euskal Autonomia Erkidegoko egoitza elektronikoko judizialaren bidez egingo da). JustiziaSip aplikazioa erabiltzeko modua I. Eranskinean zehazten da

JustiziaSip aplikazioak funtzionaltasun hauek emango ditu:



Profesionalak

- Kontsultatu honi buruzko informazio hau:
 - Gaiak
 - Banaketak
 - Seinaleak
 - Organo judizialak
 - Informazioaren historia
- Jakinarazpen elektronikoen kudeatzea
- Ordezkoak kudeatzea
- Profesionalak aldatzeko kudeaketa
- Idazkiak aurkeztea
 - Hasierako idazkiak
 - Izapideen idazkiak
- Helarazitako kopiak

Prokuradoreen gela

- Jasotako jakinarazpen telematikoak hartzea eta kudeatzea
- Jaiegunen egutegia kudeatzea
- Gaituen kudeaketa (gaituen alta eta kontsulta)
- Prokuradoreen aretoko langileen kudeaketa (alta eta baja)
- Informazioaren historia

SISTEMA ERABILTZEKO ARAUBIDEA

Erabiltzaile guztiek derrigor erabiliko dituzte baliabide telematikoak. Jakinarazpenak modu ez elektronikoan igortzeko sistema pixkanaka kenduko da, <https://justiziaprofesionales.justizia.net/liburutegia/hedatze-egutegia> webgunean argitaratutako egutegiaren arabera.

Langileei jakinarazpenak igortzeko sistema behar bezala ezartzen dela bermatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak jarraipen batzordean parte hartzeko konpromisoa hartu du. Batzorde horretan, sistema berri hori ezartzen ari diren hainbat kolektibotako ordezkariak hartuko dute parte.

Jakinarazpen guztiak elektronikoki bidaliko dira nahitaez, bai kasuan kasuko organoaren zigiluaren bidez (bidali izanaren adierazpenarekin), bai teknikoki bidalketa egitea ahalbidetzen duen beste edozein bitartekoarekin. Prokuradoreen Elkargoen kasuan, aipatu elkargoetako jakinarazpenen geletara igorriko dira.

Komunikazio telematiko guztiek erregistro informatikoa sortuko dute bidali izanaren adierazpen gisa. Hala, hartzaileari igorri zaiola eta jaso egin duela ziurtatuko da, eta honako hauek jasoko dira: nor den igorlea eta hartzailea, igorpenaren data eta ordua, prozedura judizial mota eta prozeduraren zenbakia.



Mantentze-lanak edo beste arrazoiren bat tarteko zerbitzua eteten denean, erabiltzaileei alde zuzenik aurretik egoera horren berri emango zaie sistema informatikotik bertatik, ahalik eta azkarren.

Ezusteko matxurarik sortzen bada, edo sistemak ohiko baldintzetan zerbitzurik eman ezin bada, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailak egoera horren berri emango die erabiltzaileei. Horretarako, www.justizia.net/hasiera webgunean edo <https://justiziaprofesionales.justizia.net/hasiera> URLan argitaratuko dute horri dagokion oharra, jakinarazpen-egintzak aldi baterako modu ez telematikoan egin daitezzen. Profesionalek URL hauetatik deskargatu ahal izango dute zerbitzua eten izanaren egiaztatzea: <http://www.justizia.net/liburutegia/justificantes-justiziasip> eta/edo <https://justiziaprofesionales.justizia.net/liburutegia/justificantes-justiziasip>. Bestela, Prokuradoreen Elkargoek igorriko dute ziurtagiria, honako hauek jasota: zerbitzu hori emateko ezintasuna, zenbat denbora egon zen ez aktibo, eta etete horren arrazoiak.

PROZESUEN KOMUNIKAZIO EGINTZAK BETETZEKO OPERATIBO FUNTZIONALA

A - Jakinarazpen telematikoak.

Bulego judizialek prozesuak kudeatzeko sistema informatikoaren bidez igorriko dituzte jakinarazpen telematikoak.

Bulego judizialeko prozesuak kudeatzeko sisteman gaikuntza duen edozein erabiltzailek igorri ahal izango ditu jakinarazpenak.

Jakinarazpen telematikoetan, honako hauek egongo dira: agiri nagusia, jakinarazpenaren xedea, eta igorri beharreko eranskinak. Jakinarazi beharreko agirietan, agiri mota bakoitzerako sisteman definitutako benetakotasuna jasoko dute. Beraz, halakorik izan ezean, ezingo da jakinarazpenik egin.

Jakinarazpen telematikoak zuzenean egingo dira prozesuak kudeatzeko aplikaziotik. Hala, automatikoki sortuko da jaso izana egiaztatzen duen frogagiria. Bertan jasoko da zer egunetan igorri den, eta zer egunetan ematen den gauzatutzat komunikazio-egintza. Prokuradoreen gela kasuan, Elkargoen jakinarazpen gelek hartu izana egiaztatzen duen frogagiria sortuko da, 1/2000 PZLren 151. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Jakinarazpena irakurri ondoren, onartzeko edo organo igorleari itzultzeko (hutsagitearen bat badago) aukera egongo da. Bi kasuetan, jaso izanaren adierazpena sortuko da 24 orduko epean. Hala, onartua edo baztertua (baztertze arrazoiak eta guzti) izan den adieraziko da.

**B.- Igortzean dauden gorabeherak, hutsegiteak eta hutsuneak.**

Igorpen telematikoetan arazo teknikorik antzematen bada, sistemak erabiltzaileari jakinaraziko dio. Horretarako, beharrezkoak diren errore-mezuak bidaliko dizkio, arazoa konpondu, eta beste momentu batean igortzeko, edo beste bitarteko batzuk erabiltzeko.

Igorpena behar bezala egin bada, sistemak egiaztatzeko mezua bidaliko du. Mezu hori jasotzen ez bada, ez da igorpenik egin.

Errorea edo hutsunea adierazten duten mezuek, eta jaso ez direla adierazten duten mezuek paperean inprimatu, artxibatu eta prozesuak kudeaketa-sistemetan sar ditzake erabiltzaileak. Kasu horietan, huts egin izanaren agirian, honako hauek jasoko dira: harreraren egintza, data eta ordua.

Gai zehatz baterako arazoren bat sortzen bada, eta jaso izanaren adierazpenen bat (Bulego Judizialak igorritakoa, Prokuradoreen Elkargoko Harrerak jaso izanarena, profesionalak onartu edo itzuli izana adierazpen duena, edo Bulego Judizialak itzultzea baliogabetu dutela adierazten duena) kontsultatu ezin bada, horren orde Informatika Judizialaren Zerbitzuak agiri bat igorri ahal izango du, egoeraren nahiz hartu izanaren adierazpen horren berri emateko.

INDARREAN SARTZEA

Ebazpena hau 2016ko maiatzaren 23an jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko maiatzaren 19a



DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN
JON ARTURO URIARTE UNZALU
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA
DIRECTOR DE LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA



I. eranskina.

Profesional guztiek eskura dute "profesionalen extranet-a". Eguneroko lanerako erabilgarriak diren hainbat eduki eta informazio aurkituko dituzte han. Era berean, extranetetik sartu ahal izango dira JustiziaSip aplikaziora.

Kolektiboek informazio hori guztia eskuratu ahal izango dute www.justizia.net/hasiera Justizia webgunean, menuan "profesionalak" aukera sakatuta.

Hona hemen JustiziaSip aplikaziora sartzeko URLa:

<https://justiziaprofesionales.justizia.net/logina>

Era berean, extranet horretan, erabiltzaile taldeek (prokuradoreek, abokatuek eta gizarte-graduatuak) hainbat eskuliburu edo gida azkar izango dituzte eskura. Horietan, honako hauek jasoko dira profil bakoitzari egokituta: JustiziaSip aplikazioaren funtzio guztien azalpena (jakinarazpen telematikoei eta idazkiak aurkezteari buruzkoa barne) eta kasu bakoitzean gauzatu beharreko ekintza.

Eskuliburu horiek eguneratu egingo dira, pixkanaka, JustiziaSip aplikazioko funtzioen eboluziora egokitzeko.

Eskuliburuak erabiltzaileen eskura daude direktorio honetan: [Haisera > Liburutegia > Aplikazio informatikoak > JustiziaSip](#)